

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure enpresak ez ditu sare edo bazkide asko izango, baina horrek ez du eragingo PICE-ren errendimenduan. Bereziki, gure enpresa bi bazkide potentzial izango ditu, ekoizpena eta banaketa jardueretan.

Alde batetik, ekoizpen-jarduera oso garestia izan daiteke eta proiektu honi hasiera emateko, kostuak ahalik eta txikiak izan behar dira. Horregatik, jarduera hau guk egingo bagenu, kostuak oso altuak izango lirateke. Gure gain ditugun kostuetaz aparte, langileen soldatak ordaindu beharko genituzke eta makinak hondatzen badira ere.

Honen ondorioz, gure ekoizpenaz iFlytek izeneko enpresa arduratuko du. Enpresa txinatarrak adimen artifizialaren arloan munduko enpresa nagusienetariko bat da. Aplikazio oso famatua Voice Input izenekoa da, audioak edo testuak ingelesetik txinatarrera eta alderantziz egin dezake. Gainera, produktu teknologikoak ere ekoizten ditu, bereziki enpresa txinatarrentzat, adibidez, Oppo, Vivo eta Nubia.

Beste funtsezko jarduera bat, non elkarte bat izango dugun, banaketa izango da. Gure enpresa hurbileko banaketaz (Gasteiz barnekoak) arduratuko da eta SEUR hiritik kanpokoetaz arduratuko da. Gainera, enpresa espezializatu honek webgunetik eskatutakoa eramango diote kontsumitzaileari.

SEUR banaketan espezializatutako enpresa espainiarra, GeoPost talde frantziarraren filial bat da, bakarrik Espainian eta Portugalen jarduten du. SEUR orain dela 70 urte baino gehiago martxan dago, hiru negozio aratz nagusi izanda: internazionala, salerosketa elektronikoa eta balio erantsia duen logistika.

SEUR estruktura bat du 6.300 langilez, 1.000 dendaz eta 3.500 ibilgailuz osatuta, 1.200.000 bezeroei zerbitzu hau eskaintzeko. Enpresa hau GeoPosten akordio bidez, 230 herrialdeetara bidali ahal dituzte haien banaketak.

Azkenengo urteetan, bere RSC politika sendotu du, ibilgailu alternatiboak erantsi ditu eta gidaritza eraginkorrean liderrak bihurtu dira.

Laburbilduz, gure enpresak jarduera hauetan bazkideak aurkitu dituzte edo funtsezko elkarteak egin dituzte, bereziki hasiera batean kostuak txikiak izateko. Honen ondorioz, gure ideia merkatuan onartzen ez bada, atzera egiteko ahalmena izango dugu. Bestetik, denbora pasatu ostean eta etekinak lortzean, elkarte hauen jarraitasuna aztertu beharko ditugu.

Azkenik, gure enpresa kooperatiba bat izango da, lau bazkideek osatuko dutena, azkenean laurek helburu berdina lortzeko (koaderno teknologikoaren salmentekin etekinak lortzea) lan egiten dugu. Bakoitzak 5000€ jarriko ditugu kooperatibaren sorrerarako eta urteroko mozkinen %1 erreserbetara sartuko ditugu, bereziki, guk ekoizpena hasi nahi dugun momentuan gastuak aurrera ateratzeko.

